

zakilixut

© Olariagak



KATE MOTZEAN

«Mundua beti egongo da gaizki»

■ Eguberriak, bake garaia. Ez dut uste aurten Belenen halakorik esan dutenik.

Eta esatea kostatuko zaie. Palestinaren eta Israelen arteko gatazkak ez du konponketa-rik izango urte gutxitan.

■ Urte askotan, nola konpon daiteke?

Palestinako Estatua sortuz. Ez dut nik asmatu. Jende guztiak daki.

■ Olentzerok Trivial jokoa oparitu dit. Suntsitze handirako armak ditu, ez ditu betetzen NBeren ebazpenak, eta ez da Irak. Nor da?

Seguru asko, Israel, baina Amerikako Estatu Batuak ere (AEB) izan litezke.

■ Erantzuna horren agerikoa izanda, zergatik entzuten da horren gutxitan?

Israelen aldeko interes ugari dagoelako AEBetan.

■ Zer oparitzen dio Olentzerok analista bati, *Le Monde Diplomatique*-ren harpidetza?

Egun, garrantzitsuen Internetarako lotura azkarra da.

■ Dagoeneko saihestezina al da mendebaldeko nagusiek Irak bonbardatzea?

Ez, baina Etxe Zurian erabakia hartuta dago, eta Pentagonoan egin beharreko prestakuntzak egiten ari dira.

■ Haien azken bonbak Afganistanen erori ziren. Inor oroitzen al da?

Ez. Baina Afganistanen bonbardaketak nahiko zehatzak izan ziren, eta zibilengan kalte gutxi eragin zuten. Ikusteko dago Iraken gauza bera egiten duten.

■ Ez da egia izanen zehar-kalteak kontrolatzen dituztela?

Hori eufemismoa da, eta errealitatea ezkutatzeko darabilte: gerrek beti hiltzen dute jendea.

■ Bin Laden existitzen da, ala Mundu Librearen gurasoek asmatu dute?

Izan, bada, baina oso gutxi eza-gutzen dugu. Oso zaila da jakitea nor den eta zer egiten duen.

■ Venezuelen sekulako jaiotza muntatu dute. Zer gertatuko da?

Oposizioek hila beteko greba daramate, baina Chavez eusten ari da. Agian, hauteskundeak zertxobait aurreratuko ditu, baina ez dute erraz botako.

■ Telebistako igarle batek

JESUS TORQUEMADA

NAZIOARTEKO GAIETARAKO ANALISTA

Donostia, 1955. Kazetaritza ikasketak egin zituen Iruñean. Egun, EITBko irratietan munduko gatazken inguruko analisiak egiten ditu. Datorren urteari so egiteko eskatuta, ez da oso baikor azaldu.



«Zehar-kaltea eufemismoa da: gerrek beti hiltzen dute jendea»

datorren urtean Hego Amerikan hondamendi naturalen bat izanen dela esan du.

Nahiko iragarpen inozoa da. Hondamendi naturalak toki guztietan gertatzen dira, baina

azpiegitura gutxiko lurraldeetan eraginak okerragoak dira.

■ Argentinako hondamendia naturala izan al da?

Guztiz artifiziala izan da, finantzariora, bitartekoaren erabilpen

okerraren eta politika neoliberalaren ondorioa.

■ Zapatistak 1994ko urtarriaren 1ean altxatu ziren. Zortzi urte igaro dira. Ezer aldatu al da?

Nazioartean oihartzun handia lortu zuen, baina gero jendea ahaztu egin da. Oraindik argi bat dira, baina distira handirik ez duena.

■ Zertarako igorri dio eskutitza Marcos komandanteordeak autoen errege Baltasarri?

Oso gizon berezia da, probokazioa eta eztabaida gustuko dituen. Azalpena hor egongo da.

■ Eguberria, haurrentzako zinema garaia. 007ren azken filmean gaiztoak Ipar Korea-koak dira. Bushengan eragin handia izan duela dirudi.

Teoria iradokitzailea da, baina liskarra aspalditik dator, gerra hotzetik. Bushen duela bi urte gauzak bideratzeko aukera izan zuen, baina ez zuen egin.

■ Afrika beltza ez dugu aipatu ere egin. Aipaezina al da?

Ia-ia. Ezin dira beren kasa atera dauden zuloak, eta ez dirudi laguntza jasoko dutenik. Afrika-koa da benetako miseria gorria.

■ Gauzak horrela, ez al da sarkastiko samarra «urte berri on» esatea?

Ez. Zoriontasunak gauza pertsonala izan behar du; izan ere, mundua beti egon da gaizki, eta beti egongo da gaizki.

